



LESAKAKO BTT IBILALDIA 2026

ARAUDIA

1. PROBAREN DATA, LEKUA ETA MODALITATEA.

Lesakako BTT Ibilaldia 2026 Lesakako mendietatik (Nafarroa) igarotzen den BTT proba ez lehiakorra da, **irailaren 13an** egingen da.

2. IBILBIDEA.

Parte-hartzaileek **bi ibilbide zirkularren** artean aukeratu ahal izanen dute.

Ibilbidea behar bezala seinaleztatuta egonen da eta puntu gatazkatsuenetan boluntarioak egonen dira.

Ibilbide laburrak 23 km eta 770 metroko desnibela izanen ditu eta **luzeak** 37 km eta 1.414 metroko desnibela. Azken honetan Bizibideko zati bat gehitzeko aukera egonen da nahi duenarentzat, zailtasun ertainekoa eta 3km luzatuko litzateke, 200 metroko desnibela. Hona hemen ibilbideen trakak:

* *Ibilbide luzea:* <https://es.wikiloc.com/rutas-mountain-bike/lesaka-btt-2022-luzea-112277164>

* *Ibilbide laburra:* <https://es.wikiloc.com/rutas-mountain-bike/lesaka-btt-2022-motza-112139327>

* *Ibilbide luzea Bizibide luzaketarekin:* <https://es.wikiloc.com/rutas-mountain-bike/btt-lesaka-2026-bizibide-276455770>

3. IRTEERA.

Probaren irteera 09:00etan izanen da Lesakako Plaza Zaharretik (Nafarroa).



4. IZEN-EMATEAK, DORTSALAK JASOTZEA ETA SALNEURRIAK.

Internet bidez soilik, irailaren 11ra arte (23:59), www.kirolprobak.com webgunean.

Dortsalen bilketa proba **egunean bertan** izanen da Plaza Zaharrear 8:00etatik aitzinera.

Salneurriak hauek dira:

MOTA	SALNEURRIA
Beti Gazteko BAZKIDE eta UCI FEDERATUA	12 €
Beti Gazteko BAZKIDE eta EZ FEDERATUA	15 €
Beti Gazteko EZ BAZKIDE eta UCI FEDERATUA	17 €
Beti Gazteko EZ BAZKIDE eta EZ FEDERATUA	20 €

Federatutako parte-hartzaileek **federazio aseguruarekin** babestuak daudela onartzen dute. **Federatu gabeko** parte-hartzaileek **Beti Gazteren kontura** izanen dute asegurua probaren egunean, haren edukia eta babesten duena onartzen dutelarik.

Izen-emateak **ezin dira baliogabetu**, izena eman duenak ordaindutako kopurua galduko du. Izena eman duena agiri identifikagarri batekin aurkeztuko balitz probaren egunean, kamiseta oroigarria jasoko luke.

5. ADINA ETA BAIMENA.

Adingabe guztiek guraso edo tutorearen **baimena** aurkeztu beharko dute proban parte hartzeko. Horrez gain, 16 urtetik beheitikoek proban izena eman duen arduradun batekin egin beharko dute ibilbidea. **Adingabearekin doan pertsonak proba uzten badu, adingabeak ere utzi egin beharko du.**

Baimenaren inprimakia klubaren webgunean eta izen emate plataforman egonen da eskuragarri, eta antolakuntzari eman beharko zaio, bai probaren egunean bertan bai lehenagotik kirola@betigazte.net helbidera posta elektronikoz bidaliz.

6. ARAUDIA BETETZEA.

Antolakuntzak ez ditu bere gain hartzen gerta daitezkeen istripuak.



Derrigorrezkoa da ibilbide osoan zehar **kaskoa** erabiltzea

Debekatuta dago proban parte hartzea arauzko dortsala eraman gabe eta bertan inskribatuta egon gabe. Txirrindulariren batek hala egiten badu, eta istripuren bat badu edo eragiten badu, bera izanen da istripuaren arduradun gorena, eta probaren antolakuntzak ez du bere gain hartuko bere buruari edo hirugarrenei eragindako kalteen erantzukizuna.

Antolakuntzak ibilbideei, ordutegiei edota abarrei buruzko **aldaketak egiteko eskubidea** gordetzen du, arrazoiren batengatik beharrezkoa dela uste duenean.

Proba uztea erabakitzen duen parte-hartzaile orok **antolakuntzari jakinarazi** beharko dio, emango zaion **dortsalean agertzen den telefonora** deituz edo ibilbidean zehar dagoen edozein laguntzaileri berri emanaz.

Frogan inskribatze hutsak araudi hau onartzea eta bertan sortutako kalteen ondorioz antolakuntzaren aurkako eskubide guziei uko egitea dakar.

7. OSASUN-LAGUNTZA, DUTXAK ETA BIZIKLETEN GARBIKETA.

Sorospen-zerbitzuak izanen dira puntu estrategikoetan.

Istripua gertatuz gero, parte-hartzaileek eta haien laguntzaileek aseguru bakoitzak ezartzen dituen arauen arabera jokatu beharko dute (federazioarenak edo parte-hartzailearenak izan) eta aipatutako prozedura zorrotz betetzeko konpromezua hartzen dute.

Behar bezala seinaleztatutako **aldagela** eta **dutxak** egonen dira.

Parte-hartzaile guztiek laguntza eman behar dute istripuren bat gertatuz gero, eta egoera horren berri eman behar dute igarotze-kontroletan.

8. IRUDI ESKUBIDEAK.

Parte-hartzaileek baimena ematen diete antolakuntzari eta bere babesleei probaren testuinguruan grabatutako argazkiak eta bideoak askatasunez erabili eta argitaratzeko.

***OHARRA:** proba ez lehiakorra denez, bizikleta elektrikoekin parte hartzeko aukera ematen da.

Araudian jasota ez dagoen edozein gai probaren antolakuntzak ebatziko du.

S.D.R.C. BETI GAZTE K.J.K.E.

Lesakako BTT Ibilaldia 2026

2026ko irailaren 13an



Lesakan, 2026ko uztailaren 16an